

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, PATALAKO UBIDEKO SARRERA-ATEAREN TELEAGINTEAREN OBRA KONTRATATZEKO, EUOPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATUA, ZEHAZKI, «ITSASERTZA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK ZAINTEA» 5. OSAGAIAREN «TRANSIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN (INGURUMENAREN ARLOKO ENFORCEMENT DIGITALA)» 3. INBERTSIOAREN ESPARRUAN. (ESPEDIENTE-ZK.: 3138)

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☒ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Aitor Ezeiza Virumbrales
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA
1.- Kontratuaren xedea: PATALAKO UBIDEKO SARRERA-ATEAREN TELEAGINTEAREN OBRA. 2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Euri-erauntsietan ur gordina, eta, beraz, uhertasun handikoa tratamendu-instalaziora iristea ekiditeko, uhertasuna ubidearen atearen ibaian gora neurtu nahi da, eta pasabidea itxi, uhertasun handiegia duen ura ez tratatu behar izateko. 3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: Obra txikia denez, eta kontratua hainbat lotetan arrakastaz banatzea eta lizitatzaille interesdunak izatea zaila dela ikusita, segmentazio hori ez egitea proposatzen da. Lizitatzailleek eskaintzak egin ahal izateko administrazioko lan-karga hartu behar da kontuan, bai eta obra-zuzendaritzarekin egindako bileretako koordinazio- eta plangintza-lanetan behar den denbora ere. 4.- CPV: - 71300000 - Ingeniaritza-zerbitzuak. - 09330000 - Eguzki-energia. - 09331200 - Eguzki-modulu fotovoltaikoak. - 09332000 - Eguzki-instalazioa. - 45310000 - Instalazio elektrikoko lanak. - 45261215 - Estalkiak eguzki-plakekin estaltzea. 5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna:

B.- KONTRATUAREN XEDEA

☒ BAI

☐ EZ

Onartzeko kondizioak eta aldaera edo alternatibarik izan lezaketen elementuak:

Bi aldaera daude:

- 1. aldaera. 600 Vac-eko garraio-linea eta kobre- edo aluminio-eroalea.
- 2. aldaera. 230 Vac / 280 Vdc-eko garraio-linea eta kobre- edo aluminio-eroalea.

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratibo ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua
(BEZa gabe)

BERREHUN ETA HAMAHIRU MILA EURO
(213.000,00 €), BEZ-A GABE.

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 213.000,00 euro

Loteak: ☐ BAI ☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Prezio unitarioak

4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontu-urterokoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 169.31 623.02. obra eta zerbitzurako 169.31 212.01

Urtea	Gutizko urterokoa	Obraren urterokoa	Mant. urterokoa
2025	161.000,00 €	161.000,00 €	0,00 €
2026	42.400,00 €	40.000,00 €	2.400,00 €
2027	2.400,00 €	0,00 €	2.400,00 €
2028	2.400,00 €	0,00 €	2.400,00 €
2029	2.400,00 €	0,00 €	2.400,00 €
2030	2.400,00 €	0,00 €	2.400,00 €
Gutitira	213.000,00 €	201.000,00 €	12.000,00 €

5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI ☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☒ BAI ☐ EZ

Funts mota: Europar Batasunaren Next Generation EU Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren kontura finantzatua. Mekanismo hori Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, ezartzen du, zeinaren bidez COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko Europar Batasunaren Suspertze Tresna bat ezartzen baita. Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera arautzen da.

- % 80ko baterako finantzaketa (BEZari dagokiona izan ezik).

7.- Ordaintzeko modua: Hileroko ziurtagirien bidezkoa. Nolanahi ere, hileroko ziurtatutako partiden % 10 atxikiko da, honako mugarri hauek bete arte:

Harrera-proba egokiak (PTPan zehazten denaren arabera) – % 5.
- Amaierako dokumentazioaren harrera. Jabetzak gutxienez 2 aste izango ditu egiaztatzeko – % 5.

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

8.- Konturako ordainketak: Ez.

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: HIRUROGEI (60) HILABETE. Obrek ZORTZI (8) HILABETE iraungo dute.

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Bermealdia: BI (2) URTE.

5.- Kontratua exekutatze tokia: Patala (Berriz udalerria)

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena —aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea— kontratuaren balio zenbatetsia halako bat izan beharko da gutxienez. (213.000,00 €)

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Azken 5 urteetan edozein izaera eta zenbatekotako teleaginte-instalazio bat eginda izan behar du.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatze ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

- Enpresa instalatzaile elektrikoa. Instalatzaile baimendua, honako hauetako espezialista-kategoriarekin:
 - Energia banatzeko aireko edo lurpeko lineak.
 - Behe-tentsioa sortzen duten instalazioak.
- Espazio konfinatuetan gutxienez 2 langilek lanak egin ahal izateko prestakuntza eta bitartekoak.
- «Elite» (IAS) ziurtagiria izatea, edo Scada programaziorako ziurtagiria duen enpresa bat azpikontratatea.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- 1. dokumentua. Aldaera eta banaketa-linean eta zati mugikorrean erabilitako kablea.
 1. Eskaintzaren aldaera zein den adierazi behar du: 1 edo 2.
 2. Banaketa-linearako eskaintzen duen kablea aluminiozkoa edo kobrezkoa den adierazi behar du.
 3. Banaketa-linearen kablearen fitxa erantsi behar du.
 4. Plataforma flotatzailearen eta lurraren arteko zati mugikorraren kablearen fitxa erantsi behar du.
- 2. dokumentua. Eguzki-eremua.
 1. Modulu fotovoltaikoak horizontalari dagokionez zein angelutan egongo diren adierazi behar du.
 2. Moduluen profilaren kokapena jasotzen duen plano bat aurkeztu behar du, eta angelu hori markatu.
 3. Posible diren bietatik zein modulu fotovoltaiko erabiliko duen adierazi behar du.
- 3. dokumentua. Eskaintako materialen eta instalazio fotovoltaiko flotatzailearen egitura eta lasten ezaugarriak.
 - Eskaintzen duen egitura flotatzailea 1 klasekoa den ala ez adierazi behar du; sektorean erreferentziatzekoa den egitura fotovoltaiko flotatzaileen sailkapenaren arabera: Marco Rosa-Clotek eta Giuseppe Marco Tinak argitaratutako «Floating PV Plants». Several floating photovoltaic solutions are examined and categorised in three distinct classes: (1) Class 1: High-density polyethylene (HDPE) pipes plus steel or aluminum components for building rafts of large dimensions; (2) Class 2: Full HDPE rafts of small dimension, typically mono-module connected together by suitable hooks; (3) Class 3: Floating pontoon structures, connected together and able to support photovoltaics modules. A new solution, gable slender, is proposed and discussed. (iturria: <https://www.sciencedirect.com/science/article/abs/pii/B978012817061800004X>)
 - Portaera hobetzen duten materialen propietateak adierazi behar ditu:
 - Egiturak zer material dituen eta zer-nolako portaera duen korrosioaren eta suaren aurka.
 - Nola proposatzen duen instalazio flotatzaileraren sartzea, mantentze-lanak erraz eta seguru egiteko.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Plataformak instalatuta izango dituen defentsak adierazi behar ditu, bai eta horiek egiturari nola eutsiko dioten ere, egitura kolpeetatik babesteko, urtegiaren pareta babesteko eta bizitza luzeko elementuak izateko.
- Posizio erlatiboari eusteko ainguratze-sistemaren, lasten eta tenkatze-sistemaren ezaugarriak.
 - Nola ziurtatuko du plataformak egituraren posizio erlatiboa mantentzea, xaflaren kota-diferentzia esanguratsuekin?
 - Nola mantenduko du konstante finkatze-kableen tentsioa?
 - Bakoitzaren kokapena, ainguraketa-puntuen kopurua eta eskaera mekanikoak adierazteko eskatzen da.
 - Zein lasta-sistema erabiliko du? Nola askatu eta lotu ahal izango zaio egitura berriro?
- 4. dokumentua. Urpeko linearen lasten eta ainguraketen ezaugarriak.
 - Materialaren dentsitatea eta lasta bakoitzaren pisua adierazi behar ditu.
 - Urarekiko duen portaera adierazi behar du.
 - Zer neurri ezarriko dira kablea ez narriatzeko lastarekiko marruskaduragatik?
 - Nolakoak izango dira lastaren ertzak? Zer ertz bizi izango ditu?
 - Kablea finkatzeko lastan erabilitako ainguraketen ezaugarriak.
 - Euste-briden ezaugarriak.
- 5. dokumentua. Koadro eta ekipoetarako euskarri eta egituren ezaugarriak.
 - Ezarpen-proposamena eskatzen da, bai eta euskarrien eta egituren tamainak ere koadro eta ekipo bakoitzerako (transformadoreak, inbertsoreak, bateriak, etab.).
 - Ezarpen hori eskuz egin daiteke eremuko argazkien gainean, eta deskribapen bat gehitu.
 - Zein zulaketa egin behar dira finkatzeko? Non? Zenbat? Zein sakontasun izango dute?
- 6. dokumentua. Turbidimetroa mantentzeko barandaren, burdinazko atakaren eta lan-plataformaren ezaugarriak, eta hesia mugitzeko ainguraketak.
 - Turbidimetroaren eremura sartzeko barandaren eta burdinazko atakaren ezaugarriak.
 - Egungo pasabidea libre utziko duen ainguraketa-sistema.
 - Turbidimetrorako lan-plataformaren ezaugarriak.
 - Patalan erabili beharreko zubi/euskarriaren eta barandaren ezaugarriak, bereziki korrosioari eta hezetasunari aurre egiteari dagokionez.
 - Proposatutako estetika eta akaberak zeintzuk diren adierazi behar du.
- 7. dokumentua. Gainerako instalazioaren materialen ezaugarriak.
 - Proposatutako inbertsorearen eta baterien ezaugarriak. Zertan hobetzen ditu preskribatutako ekipoak? Inbertsoreak IT funtzionamendu-araubidea onartzen du?
 - Koadro elektrikoak eta horien aparatuak.
 - Eskainitako aparatuen marka eta modeloa.
 - Zer proposatzen du libre dagoen espazioan koadroak integratzeko? Hasieran koadro bakarra denarentzako hainbat inguratzaile erabiliko ditu espazioa hobeto aprobetxatzeko?
 - Proposatutako koadroek isolamendu bikoitza dute?

Obran erabilgarri dauden bitartekoak:

- 8. dokumentua.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Urtegia irteera-hodiaren goiko alderaino gehienez zenbat aldiz husteko konpromisoa hartzen den adierazi behar du, jakinda 8 ordu daudela uhatea ixten HASTEN denetik GUZTIZ irekitzen den arte. Gainera, jakinda *uhate hori irekitzeko eta ixteko maniobra adjudikaziodunak egingo duela*.
- Ubidea irteera-hodiaren goiko alderaino gehienez zenbat aldiz husteko konpromisoa hartzen den adierazi behar du, jakinda 8 ordu daudela uhatea ixten denetik irekitzen denera arte (ez aurreko eragiketa egiten den aldi berean). Gainera, jakinda *uhate hori irekitzeko eta ixteko maniobra adjudikaziodunak egingo duela*.
- Hobetu dezakeen beste edozein alderdi esanguratsu adierazi behar du.
- 9. dokumentua. Adierazi behar da zer bitarteko osagarri erabiliko dituen egitura *in situ* muntatzeko, sartzeko dauden zailtasunak kontuan hartuta. Halaber, langileen lana errazteko, ubide barruan lastak garraiatzeko erabiliko diren bitartekoak jakinaraziko dira eta, bereziki, ubidea ez kaltetzeko gomazko gurpilak dituzten elementuak.

Hobekuntzak

- 10. dokumentua. Berme-epea zenbat hilabetetan areagotzen duen adierazi behar du, eta zer baldintzatan, eskatutako gutxieneko bermeari dagokionez.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, l. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskainitako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda.
- b) Kontratuaren aurrekontua.

Kontratista bakoitzak dagokion taula bete behar du. Neurketa-unitateak kontratu honen PTPAn deskribatzen denaren arabera ordainduko dira. Taula horietan adierazten dira zein obra-unitate diren prezio itxian eta zeintzuk ordainduko diren neurketen arabera; prezio itxidunek «C» atzizkia dute, eta neurketen araberrakoei «M». Prezio itxiko unitateak obraren zati hori exekutatzuz gero soilik ordainduko dira.

Halaber, PTPAren 16. eranskineko proiektuaren aurrekontua entregatuko da, PTPAn zehazten denaren arabera.

PTPAren 14. artikuluan zehazten da dena.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoki aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.

☒ Kontratazio-mahaia

Presidentea:
Ekaitz Mentxaka Corral jn.

Kideak (titularrak):
Mikel Magunazelaia Pinaga jn.
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.
Gerardo Latorre Pedret jn.
Jose Manuel Pereda Renobales jn.

Idazkaria (titularra):
Gerardo Latorre Pedret jn.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa esleitzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekorekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
$(B_{max} + BBB) / 2$	48 puntu
BBB	47 puntu
$0,8 \times BBB$	46 puntu
$0,6 \times BBB$	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua.....	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBM < Bi \leq 0,8 \times BBM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBM)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBM < Bi \leq BBM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBM)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBM < Bi \leq (BBM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBM)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBM - Bmax)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Memoria teknikoa: 34 puntu.

- Aldaeren aukeraketaren eta banaketa-linean erabilitako kablearen arabera, 3 puntu emango dira gehienez. Balorazioan, lehentasuna emango zaio aluminioa erabiltzeari kobrea erabiltzearen aurrean (kablea lapurtzeko asmoan atzera eginarazten duelako), eta sekzioa handitzeari transformadoreak muntatzearen aurrean (instalazioa sinplifikatzen duelako, garestitzen badu ere).
 - Azalpen-oharra: plataforma flotatzailearen eta lurraren arteko kablea kobrezkoa izan daiteke, beste hori gorabehera. Zehazki kable hori, urperagarria izateaz gainera, zerbitzu mugikorrerako prestatua egon behar da.
- Eskainitako materialen eta instalazio fotovoltaiko flotatzailearen egitura eta lasten ezaugarriak. 10 puntu.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Egituraren propietate hauek baloratuko dira, besteak beste:
 - Eguzki-moduluen inklinazioa, horizontalari dagokionez.
 - 1 klaseko sistema mota; sektorean erreferentziazkoa den egitura fotovoltaiko flotatzaileen sailkapenaren arabera: Marco Rosa-Clotek eta Giuseppe Marco Tinak argitaratutako «Floating PV Plants». Several floating photovoltaic solutions are examined and categorised in three distinct classes: (1) Class 1: High-density polyethylene (HDPE) pipes plus steel or aluminum components for building rafts of large dimensions; (2) Class 2: Full HDPE rafts of small dimension, typically mono-module connected together by suitable hooks; (3) Class 3: Floating pontoon structures, connected together and able to support photovoltaics modules. A new solution, gable slender, is proposed and discussed. (Iturria: <https://www.sciencedirect.com/science/article/abs/pii/B978012817061800004X>).
 - Korrosioarekiko erresistentziaren aurka.
 - Suaren aurkako materialak erabiltzea.
 - Mantentze-lanak erraz eta seguru egiteko plataformara sartzeko soluzioa.
 - Instalaturako defentsak eta egiturarako lokailuak.
- Posizio erlatiboari eusteko ainguratze-sistemaren, lasten eta tenkatze-sistemaren ezaugarriak.
 - Xaflaren kota-diferentzia esanguratsuekin egituraren plantako posizio erlatiboa mantentzen duten sistemak baloratuko dira.
 - Finkatze-kableen tentsioa konstante mantentzen duten sistemak baloratuko dira.
 - Kokapena, ainguraketa-puntuak eta eskaera mekaniko txikiak baloratuko dira.
 - Erabilitako lasta mota, haren ezaugarriak eta egituratik erraz askatu ahal izateko sistemak baloratuko dira.
- Urpeko linearen lasten eta ainguraketen ezaugarriak. 4 puntu.
 - Linearako erabiltzen diren lastak irizpide hauen arabera baloratuko dira:
 - Lastaren materialaren dentsitatea eta pisua. Adierazitakoa baino dentsitate eta pisu handiagoko lastak hobesten dira.
 - Uraren aurkako portaera. Iraunkorra izan behar du, 25 urtetik gorakoa.
 - Kablea lastarekiko marruskaduragatik ez narriatzeko neurriak. Kablearen mugimenduak ez du ez urratu behar eta ez da kaltetu behar urteen poderioz.
 - Lastak istripuak eragin ditzaketen edo kablea kaltetu dezaketen ertz bizirik ez izatea.
 - Kablea finkatzeko lastan erabilitako ainguraketak. Ziurtatu behar dute kablea hautsi egingo dela edo kableak lasta mugituko duela ainguraketa lastatik askatu baino lehen.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Euste-bridak. Iraunkortasunez urpean erabiltzeko egokiak izan behar dute. Kablea ez kaltetzeko babes egokia izan behar dute.
- Koadro eta ekipoetarako euskarri eta egituren ezaugarriak. 4 puntu.
 - Kokapen bakoitzean integrazio-proposamen onenak baloratuko dira.
 - Haietan lan egiteko irisgarritasunagatik.
 - Pasabideetan ez molestatzegatik eta ekipoak eguzki eta euritik zertxobait babesteagatik.
 - Zulaketak ez egitea edo minimoak izatea baloratuko da. Beren pisuaren bitartez sostengatu daitezkeen ekipoak hobesten dira, edo ur-xaflaren gehieneko alturaren kotaren azpitik dauden eremuetan kalteak eragin ezin dituzten lekuetan egitea zulaketak.
- Turbidimetroa mantentzeko barandaren, burdinazko atakaren eta lan-plataformaren ezaugarriak, eta baranda mugitzeko ainguraketak. Zubi/euskarriaren ezaugarriak. Iraunkortasuna hobetzen duten eta proiektuan adierazitako estetikari eusten dioten akaberak positiboki baloratuko dira. 4 puntu.
- Gainerako instalazioaren materialen ezaugarriak. 9 puntu.
 - Inbertsoreak eta bateriak. Preskribatutakoak baino hobeak diren ezaugarriak baloratuko dira, hauei dagokienez: bermearen iraupena, bateriaren ahalmena, abantailaren bat eskaintzea, adibidez, inbertsoreak IT araubidean jardun ahal izatea.
 - Koadro elektrikoak eta horien aparatuak.
 - Eskainitako aparatuak baloratuko dira. Lehen mailako markak erabiltzea hobesten da.
 - Erabilgarri dagoen espazioan integratzea eta erabilgarri dagoen espaziora ondoen egokitzen diren inguratzailleak hornitzea baloratuko da. Hortaz, askotarikoagoak diren neurriak eskaintzeko malgutasuna positiboki baloratuko da; espazio libre bat hobeto aprobetxatzeko bi inguratzaille erabiltzen direlako (zabalera handia eta altuera txikia, eta alderantziz), adjudikaziodunarentzat dakarren gainkostuarekin.
 - Isolamendu bikoitza duten koadroak baloratuko dira, isolamendu sinplea duten koadroen aldean.

Obran erabilgarri dauden bitartekoak: 14 puntu.

- Kontuan hartuta Patalako ubidearen uhatea ixten denetik berriro ireki arte ez direla 8 ordu baino gehiago igaroko jardunaldi bakoitzean, adjudikaziodunak obrarako eragiketa hori errepikatu beharko duen aldi kopurua baloratuko da. Urtegia irteera-hodiaren goiko kotaraino hustu beharko den aldi kopurua ere baloratuko da. Urtegian lan egiteko husten bada, ubidean lan egiteko aprobetxa daiteke; hala ere, aldibereko eragiketa horiek ez dute puntu gehiago ematen kontu honetan. 10 puntu emango dira.
 - Urtegia irteera-hodiaren goiko zatiraino hustuko den aldi kopurua.
 - Ubidea hustuko den aldi kopurua (gehienez irteera-hodiaren goiko zatiraino).

Adjudikaziodunak ireki eta itxiko du ubidea.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Segurtasuna dela eta, lana eten behar bada, ubidetik edo urtegitik baztertu behar izateko moduko intentsitateko euri-erauntsiak daudelako, bezperan eguraldi lehorra egingo zuela iragarri zenean (eta obra-zuzendaritzaren oniritziarekin planifikatu zirenean), ez da batuko maniobren zenbaketa honetan.

Lan horiek egin aurretik, kablea eskatzeko neurketa egingo da, baina maniobra hori ez da batuko zenbaketa honetan.

- Egitura *in situ* muntatzeko bitarteko osagarriak baloratuko dira, sartzeko dauden zailtasunak kontuan hartuta, bai eta ubidearen barruan lastak garraiatzeko erabilitako bitartekoak ere. Langileen lana errazten duten, eta, bereziki, ubidea ez kaltetzeko gomazko gurpilak dituzten elementuak baloratuko dira. 4 puntu.

Hobekuntzak: 2 puntu.

- Berme osagarriaren epea handitzea. Denboraz gain, baldintzak eta irismena ere baloratuko dira. 2 puntu gehienez.

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:

- Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkeztean badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- 4.- Lizitatzailari, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:**
Baztertzeko arrazoa izango da memoria teknikoaren 1. aldaeran gutxienez 15 puntu eta 2. aldaeran gutxienez 17 puntu ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

ZIGORRAK

Urtegia edo ubidea husteko aldi kopurua ez betetzeagatik.

500 euroko zigorra ezarriko da lehenengoan, eta, hortik aurrera, aldi bakoitzean 1.000 eurokoa.

Azpikontaratistei eta hornitzaileei ez ordaintzegatik zigorrak

- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 228 bis artikularen arabera, BBUPEk azpikontaratistei eta hornitzaileei ordaindu izanaren ziurtagiriak eskatu ahal izango dizkio diskrezionalki adjudikaziodunari. BBUPEk eskubide hori baliatuko du. Gainera, adjudikaziodunak obra honen prestazioen ordainketak legezko epeen barruan egiten ez baditu (gehienez 30 egun agiri hau idazteko unean), BBUPEk gehienez zenbatekoaren % 0,25ekin zigortuko du azpikontaratistari ordaindu ez zaizkion kontratu-unitateen zenbatekoa, horiek ordaintzeko atzeratzen den aste bakoitzeko, gehienez ere kontratuaren zenbatekoaren % 5era arte. Eta zordundutakoaren zenbateko baliokidearekin atzeratuko du ziurtapena.

EPEAK EZ BETETZEAGATIKO ETA DIRULAGUNTZA GALTZEA ERAGITEN DUTEN BESTE ARRAZOI BATZUENGATIKO ZIGORRA

Obra dirulaguntza jasotzeko epean amaitzen ez bada, edo epe barruan eta behar bezala aurkeztu behar diren zereginak eta dokumentazioa epean amaitzen ez badira, galduko diren dirulaguntzekin zigortuko da, aipatu zenbatekoaren % 25ean.

Zigorren batura % 5era iritsiz gero, kontratua bertan behera utzi ahal izango da.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatik erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztatzea.
Administrazio-klausula partikularren agiriaren gehigarria. (VIII. eranskina)

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasieran aurkezteko betebeharra
☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA
Ez

Q.- ERREKURTZO BEREZIA	
☐ BAI ☒ EZ	
R.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA	
OSAGAIA:	Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana lau helburu handitan dago eratuta (Espainia berdea; Espainia digitala; Espainia, genero-arrakalarik gabe; Espainia kohesionatua eta inklusiboa) eta hamar palanka-politikatan: I. Hiri- eta landa-agenda eta despopulazioaren kontrako borroka. II. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak. III. Energia-trantsizio bidezko eta inklusiboa. IV. XXI. menderako administrazioa. V. Industria-ehuna eta ETEak modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa suspertzea eta Espainia herrialde ekintzaile gisa sustatzea. VI. Zientziaren eta Berrikuntzaren aldeko Ituna. Estatuko Osasun Sistemaren gaitasunak indartzea. VII. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena. VII. Zaintzen ekonomia berria eta enplegu-politikak. IX. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea. X. Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde inklusibo eta jasangarria xede. Palanka-politika horiek 30 osagaitan zehazten dira. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 5. osagaiaren barruan (Itsasertza eta ur-baliabideak zaintzea) 3. inbertsioa dago («Eraldaketa digitala uraren sektorean»). Lizitazio honen edukia osagai horren barruan dago; kontratistak/azpikontratistak hura ezagutzen duela adierazten du, eta bere jardun-eremuan hura betetzea hitzematen du. Hartarako, hari lotutako helburuak betetzen lagunduko dute, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Europa zein Espainia mailako suspertze-planen araudiari jarraikiz. Zehazki, oinarri horiekin, esparru hauetan sar litezkeen jarduketak egingo dira: C5.I3a azpineurria, ur-baliabideei buruzko ezagutza eta horien erabilera hobetzeari buruzkoa. Ura eta energia erabiltzean efizientzia sustatzeko erarik onena uraren hiriko zikloaren kudeaketa integrala da, eta digitalizazioa, horrenbestez, uraren hiriko zikloa kudeaketaren efizientzia orokorrean hobetzeko zeharkako neurria da, eta osatu eta lagundu egiten du, <u>Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana diseinatuta dagoen bezala, «Baliabide hidrikoen ezagutza eta erabilera hobetzeko eta prezipitazioak eta beste datu meteorologiko batzuk erregistratzeko tresnak abian jartzea» 79. CID helburua betetzen, 91/271/EEE Zuzentaraua betetzea bermatzeko eta energia-efizientziaren irizpideak betetzeko, edo ura banatzeko sistemetan efizientzia hobetzeko eta ur-galerak murrizteko.</u> Inbertsioak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren C5.I3 osagaiaren barruan daude; horregatik, <u>egin beharreko jarduketak bat etorriko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren VI. eranskineko («Klimaren aldeko ekintzarako jarraipen-metodologia») 3. inbertsioa: 040-«Uraren kudeaketa eta ur-baliabideen kontserbazioa (ibai-arroen kudeaketa, klima-</u>

	<u>aldaketara egokitzeko neurri espezifikoak, berrerabilpena, ihesen murrizketa barne)» esku-hartze eremuarekin.</u> Entitate deitzaileak egiazta dezan deialdiarekin lotutako mugarriak (lorpen kualitatiboak) eta helburuak (lorpen kuantitatiboak) bete direla, kontratistak/azpikontratistak epearen barruan eta behar bezala aurkeztu beharko ditu egoki iritzitako jarraipen-txostenak, zeinak honako honetan jasota dauden: HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko). Bete behar du, era berean, urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa. Ez-betetzetat hartuko da eskatutako jarraipen-txostenak ez aurkeztea, bai eta txostenok osatu gabe, epea kanpo eta agiriaren zehaztapenak aintzat hartu gabe aurkeztea.
JARDUKETA:	PERTE URA (A02) – CONTROL DE VOLUMEN Y CALIDAD DE AGUA DETRAIDA EN ORIGEN (CAPTACIONES)
Kontratazio- organoaren iruzurraren aurkako neurri- plana kontsultatzeko esteka	https://www.consorciodeaguas.eus/web/Transparencia/PDF/INSTITUCIONAL/CAS/Plan-integridad-medidas-antifraude.pdf

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Lanak zerbitzuaren beharren arabera izango dira. Horregatik, edozein unetan eten edo atzeratu beharko dira, BBUPEk hala eskatuz gero (modu arbitrarioan). Ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekar dezake.

Adjudikaziodunaren akats edo zabarkeria baten ondoriozko matxura larri batek eta istripu larri batek kontratua deuseztatzea ekar lezake.

Atzerapenagatik % 5eko edo gehiagoko zigorrak aplikatuz gero, horrek kontratua deuseztatzea ekar lezake.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Adjudikaziodunak kontratua garatzeaz arduratuko den teknikari bat izendatuko du, eta hura izango da kontratuaren arduradunaren solaskidea.

BESTE BATZUK

Gauzatze-epea eta baimenak

Une honetan, obrarako baimenak izapidetzeko fasean daude; horrek obraren iraupena baldintzatu dezake. *Kontratu hau ezingo da hasi dagozkion baimenak eskuratu arte.*

Eskaintzak aurkeztu aurreko bisitak

Lizitatzaileraren batek instalazioa bisitatu nahi duela adierazten badu, hala nahi duten lizitatzailleentzako bisita bat antolatuko du Kontratazio Sailak.

Kontratua suntsiaraziz gero

Kontratua suntsiaraziz gero, proiektu originalaren arabera (lizitazioaren oinarria) osorik exekutaturako unitateen % 75 ordainduko da, eta prezio horiei kontratuaren baja aplikatuko zaie. Hau da, kontratuaren baja % 20koa bada, ordaindutako unitate bakoitzaren zenbatekoa gehienez % 75*% 80 izango da, % 60. Exekutaturako proiektua aldaera bat bada, lizitazio-proiektuaren obra-unitate baliokideetan aplikatuko dira.